

BURUZ BURU



Izenburua: Buruz buru

Egileak: Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia
Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
Julio Soto-Gorka Urbizu
Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
Andoni Egaña-Ruper Ordorika
Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
Manex Agirre- Ilaski Serrano




Salneurria: 20€

Orri kopurua: 224 orrialde

Formatua: 7 liburuxka eta kutxa bat

Salmenta lekuak: www.lanku.eus
Durangoko Azoka
eta ohiko liburutendetan

BURUZ BURU



Hona hemen “Buruz buru” proiektu berria, zazpi liburuxkaz osaturiko kutxa. Izenak berak dion moduan, egitasmoan parte hartu duten zazpi bertsolariak kultur adierazpide desberdinetako sortzaileekin jarri ditugu jolasean: bat-bateko erregistro errimatu eta neurtua alde batera utzi eta hitz lauz erantzun diete beren bikoteek proposaturiko abiapuntuei. Ohikoak ez dituzten lanetan aritu dira gehienak, beraz; batzuk gai-emaila eta besteak, berriz, idazle.

Zergatik argitaratu dugun lan hau? Bada, bertsolaria kultur gile sortzailea da, eta sortzen du orain eta hemen dituen kezka eta ziurtasunetatik. Kezka eta ziurtasun horiek, aitzitik, aldakorak dira, eta, egokitu eta moldatu ohi dira inguruarekin harremanean; hau da, beste kultur gile sortzaileen kezka eta ziurtasunekin harremanean.

Hartu-eman konplize horien emaitza da liburuxka bakoitza, eta abiapuntu adina estilorekin egingo duzue topo atal batetik bestera zoazten heinean; narratibotik gertuago daude batzuk, saiakeratik besteak. Hausnarketarako gai oso interesgarriak mahai gaineratuko dizkizute, nolahi ere, bikote guztiek.

Bertsolarien eta beste sortzaileen arteko elkarlana oholtzan askotan ikusi izan dugu (musikariek, zientzialariek, marrazkilariek, idazleekin, antzezleekin...) paperen ordea ez hainbeste eta hona ekarri nahi izan dugu.

Sortzaileen aukeraketan, lurraldetasuna, generoa, adina... kontutan hartu ditugu, ahalik eta abaniko zabalena osatzen ahalegindu gara; proiektu aberatsa eta anitza beraz, irakurle desberdinengana iristeko aukera zabala eskaintzen duena. Proiektua Lankuren ekimenez hasi bazen ere, bertsolariaren ekarpenekin aberastu da eta oso eskertuta gaude.

Testuekin batera, Malen Amenabar ilustratzaile eta bertsolariaren irudiak aurkitu ahal izango dituzue; pieza bakoitzari testura propioa emateaz gain, proiektuaren atze-oihala osatu duten irudiak dira.

Egitasmoa estreinakoz plazaratu dugun arren, aurrera begira ere bertsolariari foro honetan lekua ematen jarraitzea da gure asmoa; doinu eta neurri librean, beren jardunari loturiko zerbait kontatu nahi duen oro izango da ongi etorria.

Durangoko Azokan lekua izango du gure argitalpenak. Esan dugunez, Lanku ertz asko dituen egitasmoa da, ez da argitaletxea huts-hutsean, baina inguruan badugu gaia argitalpen mamitsuetarako; Buruz buru da horren adibide: gogoetarako pausaleku eta narratibotik gozatzeko aukera paregabea, eta norberarentzako zein ingurukoentzako opari ederra.

Bukatzeo eskerrak eman proiektu hau posible egin duten guztiei eta bereziki Gorka Arreseri bere laguntza, prestutasun eta eskuzabaltasunagatik.

Donostia, 2018ko azaroak 29.